

Udalerriko azken festak, arrosenak

Asteazkenean piztuko dira Pasaiako azken festak, Donibaneko santiagoak. Arraunlari txapeldunek abiaraziko dute astebeteko gozamen aroa • 35-38

OSTIRALA, 2024ko UZTAILAREN 19a

Santiagoak

2024

PASAI

• OARSO BIDASOKO •

HITZA



Herriaren izena handi egin zutenak

URKO ETXEBESTE PETIRENA

Arreuna sanjuandarren ondare da. Kirol ikuspegitik herriaren izena munduko mapan jarri eta handi egin zutenak —eta egiten dutenak— traineru arrosak, eta bertako arraunlariak dira. Haiek arduratuko dira hilaren 24an santioen hasierako txupina botatzeaz, 20:00etan.

Izan ere, 1999an Kontxako Bandera irabazi zuten gizonak, eta 2014an Kontxa irabazi uzten emakumeek botako dute asteazkenean festa hasteko suziria. Duela 25 urteko hura Donibana etorri den gizonen azken Kontxa izan zen; emakumeena duela hamar urteko hura, batelehen lehena. 1999ko eta 2014ko iraileko bigarren igande haietan festa handia izan zen herrian. *Erreka* eta *Batelehenak* traineruak jainko-jainkosen pareko izan ziren, arraunean bederen. Festa hura berpiztuko dute gaur herritar denen aurrean.

1999ko Kontxako bigarren igandean *Erreka*-n arraunean ibili zirenak honakoak izan ziren: Patxi Leon, Aitzol



Goian, 1999ko 'Erreka'; behean, 2014ko 'Batelehenak'. JJ Camacho / HITZA

Aranzabe, Igor Makazaga, Miguel Angel Novoa, Antxon Sistiaga, Arkaitz Arregi, Karlos Mendizabal, Mikel Etxeberria, Anartz Gereño, Oskar Novoa, Eusko Aranburu, Ander Otero, Josu Bengoetxea eta Joseba Arbona (Iemazaina). 2014ko iraileko igande hartan, Batelehen Kontxako bost banderetatik lehenen, honakoak eskufaiako kide: Josune

Ugarte, Agurtzane Manterola, Maialen Arrazola, Arantzazu Otaño, Guruzne Azpiroz, Ane Hernandez, Sarai Lizaso, Oihana Cereijo, Irati Iñarra, Laura Golarazena, Ainhoa Saizar, Garazi Martin, Ane Pescador eta Inder Paredes (Iemazaina). Bi traineruen plantillako kideak gehiago ziren, beraz, haiei ere ohore, eta goza ditzatela festa! ■

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU! **ERASO SEXISTARIK EZ!**

BiXi - BiXi
KULTUR ELKARTEA

PRESOAK ETXERA! EUSKARAZ
ETA ASKE!

amua
PASAI DONIBANE · arropa denda

f @ amuapasaidonibane

LEIRE PERLINES APALATEGI

Yola elkarteak 75 urte bete ditu aurten; ez da zifra makala. Berezia da oso. Elkartearen sorrera ere berezia izan zen: baxoerdiaren hamar zentimoko igoera izan zen horren errudun.

1949an herriko gazteek sortu zuten Yola, eta denborarekin hazten joan zen elkarte; traineru bat uretaratzeaz gain, Kontxako banderan ere aritu ziren. Tomas Arostegi elkartearen lehendakaria da, eta pozez adierazi du herrian erreferente bilakatu zela laster batean Yola.

Gaur egun kirol eta kultur kontuetan aritzen dira buru-belarri, eta «herrian erreferente izaten jarraitzen» dutela nabarmendu du Arostegik. Urtean zehar kultur ekitaldiak eta sukaldaritza kursoak egiten dituzte besteak beste; baita kirol jarduerak ere. Elkarrekin bidea egiten jarraitzen zuen horretan, batelarak hartu zituzten ikur moduan: «Pasaitarrek asko zor diegu batelerei», gehitu du Arostegik.

Yola herrian eta herriarentzat sortu zela dio Arostegik: «Gu herririk gabe ez gara ezer». Ideia horri jarraiki, herriko beste elkartei ere laguntza eskaintzen diete, «beste elkarteek ere guri laguntza eskaintzen diguten moduan»; hots, uztailaren 31n ospatuko duten Batele- ren ekitaldian ere laguntza izango du kirol eta kultur elkarteak.

Elkarrekin 75 urte bete ditu aurten, baina batelaren ekitaldiak 62, eta Yolakoek omenaldi bat egingo diete hila- ren azkenean. Arostegi: «Herri horiek inguruko familia guztien sostengua



Batele- ren ekitaldiko artxiboko irudia da honakoa. Yola elkarteak

Yola: herritik herriarentzat

izan ziren, eta uste dugu emakume horiei omenaldi bat egitea dela eskaini diezaiekegun gutxienekoa».

Hilaren azkenean, aldi berean, Maitane erraldoia aurkeztuko dute, eta herrian zehar dantza ere egingo dute. Egun hori berezia izango dela dio Arostegik, «baina eguna berezi urtero izan behar litzateke», gehitu du.

San Pantaleon eguna eskertza gisa

San Pantaleon Eguna ospatuko dute Donibanen hilaren 27an; sardinaren festa, alegia. Yola herrian sortu zenez eta herririk gabe «ezer ere ez» denez, Pasaiako herriari egun horretan eskertza egiteko aukera ikusi zuen elkarteak, eta, beraz,

egun horretako sardinak Yolaren kontura izatea erabaki zuten.

Arostegik azaldu du egun horretan beste barruti eta herrietako jendea gerturatzeko Donibanera: «Pasaiako herriak merezi du. Are gehiago 75 urte betetzen ditugunean. San Pantaleon Eguna bultzatu eta indartu egingo dugu».

Jubilatuak eta arrantzaleen omenezko meza eta bazkariarekin hasiko da eguna, baina festa hiruretan hasiko da, herriko kuadrillek sardinak eta ikatza jasotzen dituztenean, alegia. Egunean zehar musika izango dute herrian barrera, eta, behin arratsaldeko zazpiak iristen direnean hasiko da benetako festa: sardina jana. ■

muguruza ardoak Ikusi arte!
TABERNA - JATETXEA Mila esker urte guzti hauengatik!
pintxoak / razioak / ogitartekoak
Torreatzea kalea, 8 - behea 943 39 49 44 . Pasai San Pedro

rk
rkasesoria@gmail.com
943114148 · 663443337
Donibane kalea, 2 behea
PASAI DONIBANE

aholkularitza asesoria

Aseguroak | Kontabilitatea | Lana
Fiskala | Finken Administrazioa

EROSKI city Pasai Donibane
Lezo Bide Kalea, 10 - Tel.: 943 34 60 07 - PASAI DONIBANE

Astelehenera larunbatera
8:30etik
20:30era.

Bertako ekoizleekin konpromisoa

Ongi pasa jaietan!



EGITARAU OSOA HEMEN

labureus.oarsoagenda



Donibaneko Jai Batzordea

DENETIK DUTE HAUREK FESTETAN

EGUNERO. Hilaren 24tik 31ra arte haurrei begirako egitaraua oso-oso da. Kirol jarduerak, pintxo lehiaketak, bazkariak, jolasak, eskulanak... Oporretan izanda, heiek izango dira ziurrenik santioei zuku gehien aterako dietenak. Egunez bai behintzat, eta agian, gauzez...



Olaia Gerendain

SARDINEN INGURUAN BILDUKO DIRA

HILAREN 27AN, 19:00ETAN. Donibaneko urteko bigarren festen ikurretakoa da San Pantaleon Eguna, eta horri dagokioen kuadrillen sardina-jatea. 15:00etan jasoko dituzte lagunartek ikatza eta sardinak, eta 19:00ak aldera hasiko dira sardina-janarekin. Bisitari asko-asko izaten ditu urtero jarduera horrek. Baina herriko kuadrillentzat da bereziki ederra eguna.



Tio Teronen Semeak

'HAURRESKOLARI', DANTZA ETA TXANTXA

HILAREN 28AN, 20:00ETAN. Tio Teronen Semeak taldea ikuskizun berriaren aurkezpen bira betean da, *Haurreskolari*. Duela gutxi estreinatu dute lana, beraz, Donibanekoa izango da euskal dantza, umorea eta tonu zirikatzailea uztartuko dituen kale obra ikusteko lehenetariko aukera. Santiago plazak jasoko du eskualdeko dantzari eta musikarien proposamena.

zure **taxia!**

Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo

943.39.14.14

TXULOTXO

restauranttxulotxo.com

943 52 39 52
679 31 73 40

Donibane kalea, 71.
PASAI DONIBANE

contacto@restauranttxulotxo.com

**SANJYANDARRA
EDARITEGIA**

Jai zoriontsuak
opa dizkizue!

Donibane kalea, 20.
Tel.: 943 51 52 57
PASAI DONIBANE

PASAI - LEZO

LIZEOA Herriko jaietan ere euskara ahoan

MAKAILO
ETXARRI

MAKAILO ETXARRI S.L.
Lezo Bide 17/19
PASAI DONIBANE

comercial@makailoetxarri.com
Tel.: 943 51 00 75